**2002KO URRIAREN 24AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA**: Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita laua.

**HILABETEA:** Urria.

**URTEA:** Bi mila eta bia

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA**: Jon Jauregi Bereziartua jauna

**BILDUAK:** Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristan
Pello Garaialde Goikoetxea
Josi Insausti Mujika
Jon Berbel Aiestaran
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Aimar Larrea Garin
Leire Lopez Zurutuza
Jose Luis Elorza Mugica
Mª Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

**ETORRI GABEA:** Arantza Aseginolaza Azkargorta

Eliminado: K

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA**. 2002ko urriaren 3ko aktaren onespena.

2002ko urriaren 3ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- KREDITU-ALDAKETA.** Ezohiko kreditu-aldaketaren espedientea.

Eliminado:
Eliminado:
Eliminado:

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA) proposamenaren berri eman eta ondorengoa azaldu du: “Aurrekontuetan dirua aurreikusita zegoen Antzizar kiroldegi atzean erosi genuen lursailean pabilioia egiteko. Bitarte horretan, Etxezarretarena deitzen zaion pabilioia erosteko aukera sortu da. Beraiekin harremanetan jarri ginen eta akordio batera iritsi gara. Proposatzen dena da 116 milioietatik, 52 milioi pabilioi hori erosteko erabiltzea. Pabilioi horrek zerbitzu-arloko behar guztiak asetzen ditu. Antzizar kiroldegian karrozak eta antzeko gauzak gordeko genituzke eta biltegi orokorra Erauskin, 21ean izango genuke. Pabilioi horren erosketak 52 milioi suposatuko luke eta pabilioia txukuntzeak berriz, beste 15 milioi. Gelditzen denarekin, Antzizar kiroldegi ondoan dagoen pabilioiaren teilatua konponduko genuke.”

Eliminado: K
Eliminado: erabiltzea pabiloi
Eliminado: rabiltz
Eliminado: e
Eliminado: Pabiloi
Eliminado: asetzen ditu
Eliminado:
Eliminado: K
Eliminado: Pabiloi
Eliminado: pabiloi

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros PPko ordezkariak eta PSE-EE/PSOEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Eliminado: e

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo sozialista abertzaleak): “Asmoarekiko adostasuna azaltzen dugu, baina gaia mamitu ez dugunez eta parte hartu ez dugunez, abstenitu egingo gara."

Horren ondorioz, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE; PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 4 (Beasaingo sozialista abertzaleak).

Eliminado: 4

Beraz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

**GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA**

Eliminado:

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez eta hauek finantzatzeko aurrekontu-kreditturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu-egiturari egokituta.

Eliminado:
Eliminado:

| Aurrekontu-kontusaila | Kontzeptua | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin-betiko |
| 1.1000.622.449.10.01 | Eraik.: Erauskin 21eko pabilioia eros. | 0 | 312.530 | 312.530 |
| 1.5000.622.449.10.01 | Eraik: Erauskin 21eko pabilioia egokitz. | 0 | 90.155 | 90.155 |
| GUZTIRA | | 0 | 402.685 | 402.685 |

Eliminado: partida

Eliminado: pabiloi

**EZOHIKO KREDITUAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

| Gastuen kontusailak | Baliabidearen kontzeptua | Gastuetako bajak |
|---|---|---|
| 1.5000.622.449.10.02 | Obra-biltegiaren egokitzapena | 402.685 |
| GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | 402.685 |

Eliminado: partidak

Eliminado: Acondicionamiento almacén de obras

**3.- ARAU SUBSIDIARIOAK**. 2 HA, 36 HA eta 41 HAko Arau Subsidiarioen aldaketari buruz, aurkeztutako alegazioak ebaztea eta behin-behineko onespena ematea.

Eliminado: reki

Eliminado: -

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek ondorengo proposamenaren berri eman du:

Eliminado:

Eliminado: ko lehendaka

Eliminado: i

"Gaia: 2. Hirigintza Areako, 36. Hirigintza Areako eta 41. Hirigintza Areako Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren behin-behineko onespena.

Eliminado: -

Udalbatza Osoak 2002ko ekainaren 14ko datarekin, 2. Hirigintza Areako, 36. Hirigintza Areako eta 41. Hirigintza Areako Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena eman zion eta espedientea informazio publikoan jarri zen hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, "Diario Vascon" eta "Euskaldunon Egunkarian" iragarkiak argitaratuta. Epe horretan Teodoro Cacho jaunak 2. Sektoreko Konpentsazio Batzordearen ordez alegazioa aurkeztu zuen.

Eliminado: probintziako

Eliminado: z hilabeteko epean

Espedientea Garraio eta Errepide Sailera bidali zen eta hark 2002ko irailaren 20an aldeko txostena eman zuen, adieraziz, indarrean dagoen bide-ordenamendua mantendu egin beharko dela.

2002ko urriaren 15eko datarekin, udal-teknikariak espedientean jasotzen den txostena eman zuen, aurkeztutako alegazioa onartuz, hau da, 36. HArekiko eta 31. HArekiko dokumentuan eta hain zuzen ere, "6 HIRIGINT ZARAKO XEHETASUNAK" atalean aipatutako da 2. Sektoreko hirigintza-kostuetan parte hartuko duela.

Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak Udalbatzari ondorengo proposamena egiten dio.

*Lehenik*. 2. Hirigintza Areako, 36. Hirigintza Areako eta 41. Hirigintza Areako Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespena ematea, hasierako onespena eman zitzaion dokumentuarekiko aldaketekin, hau da, Garraio eta Errepide Sailaren txostenak adierazitako aldaketak sartuz eta aurkeztutako alegazioa onartzen duen udal-teknikariaren txostena jasoz.

*Bigarren*. Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, hala badagokio behin betiko onespena eman diezaion."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez eta legeak eskatzen duen gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

**4.- 7 S**. Foru Aldundiko Hirigintza eta Arkitektura Sailaren aurrean 7.Sko behin betiko erabakiaren aurka birjarpen-errekurtsoa aurkeztea.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek hirigintza-batzordeko proposamenaren beri eman du:

"**AURREKARIAK**

2002ko urriaren 1eko Diputatuen Kontseiluak, Beasaingo 18. Areari eta 7. Alorrari dagozkien Hiri Antolaketako Arauen Aldaketaren testu bateratuari behin betiko onespena eman zion.

Behin betiko onespenak eragina izateko honako baldintza hau bete behar du: 7. Alorreko aprobetxamenduak lotuta gelditzen zaizkio Indar S.L. titularitatea duen enpresari eta bere jarduerari eta esaten da industriarako

**Eliminado:** Departamentura
**Eliminado:** one
**Eliminado:** -
**Eliminado:**
**Eliminado:** o
**Eliminado:** URBANIZAZIORAKO
**Eliminado:** urbanizazio
**Eliminado:**
**Eliminado:** rra
**Eliminado:** -
**Eliminado:** Departamentuaren
**Eliminado:**
**Eliminado:** o
**Eliminado:** -
**Eliminado:** e
**Eliminado:** hala badagokio
**Eliminado:** Departamentuaren
**Eliminado:**
**Eliminado:** 7.Sko behin betiko erabakiaren aurka
**Eliminado:**
**Eliminado:** ko lehendakari
**Eliminado:**
**Eliminado:** dira

gelditzen den lur-zatia ezin ahal izango dela banatu. Beraz, lotura hori bertan behera utzi nahi izanez gero, Hiri Antolaketako Arauen aldaketa izapidatu beharko da, sarbideei eta beharrezko gainerako zerbitzuei buruzko gaiak konponduta.

**Eliminado:** ra
**Eliminado:** ezingo dela banatu
**Eliminado:** tramitatu

Hirigintza-batzordeak, 2002ko urriaren 15ean Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egitea erabaki zuen:

**Eliminado:**
**Eliminado:** erabaki zuen
**Eliminado:** rra

**Lehenik**. Beasaingo Arau Subsidiarioen 7. alorreko behin betiko onespenaren aurka birjarpen-helegitea aurkeztea, ondorengo oinarrien arabera:

**Eliminado:**

- Ezin da zorurik transmititu eta beste edozein jaberi aprobetxamenduak esleitzeaz oztopatzeaz gain Udalari dagokion %10eko aprobetxamendua ere ezin da esleitu. Horrek guztiak, lurzoruaren balioa erabat gutxitzea eragiten du.

**Eliminado:** a
**Eliminado:** terrenoaren

- Maiz gertatzen da enpresek, unean uneko ekonomia edo produkzio-egoera kontuan izanik, izenez aldatzeko edo beste bat sortzeko beharra izaten dutela. Hau da, hain zuzen ere, Indar S.L.ren kasua. Gaur egun bi sozietate desberdinetan banandua baitago. Xehetasun honek, Diputatu Kontseiluaren erabakiarekiko kontraesana dakar eta arazoak sortzen ditu erabaki hori behar bezala betetzeko.

**Eliminado:** a
**Eliminado:** momentuko
**Eliminado:**
**Eliminado:** t
**Eliminado:** a
**Eliminado:** u
**Eliminado:** aren

**Bigarren**. Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidrauliko eta Hirigintzako Sailari erabaki hau garaiz eta behar bezala jakinaraztea, 7. Alorreko behin betiko onespenari ezarritako baldintza bertan behera uzteko eskatuz.”

**Eliminado:** Departamentuari
**Eliminado:** denbora eta eran

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**5.- XEHETASUNEZKO AZTERLANA**. 18. HAko 1-2 EPH (Emaitzazko Partzela Hiritarra) lursailaren Xehetasunezko Azterlanari behin betiko onespena ematea.

**Eliminado:** PUR ½

Alkate jaunak Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “Orain Albisu familiaren Matias-enea etxea dagoen tokian, trapezio irudia duen etxebizitza-eraikina egin behar dute. Trapezio horren ertz batek lerrokadura nahiko traketsa zuen eta egikaritze-proiektua egiteko garaian konturatu dira zegoen bezala arazo teknikoak zituztela eta bukaera beste era batean eman beharrean daudela. Aztertu ondoren, erpin hori kamustea erabaki dute eta hor galtzen diren metroak orokorrean banatzea. Horrek

**Eliminado:**
**Eliminado:** ko lehendakari
**Eliminado:** Albisu
**Eliminado:** a
**Eliminado:** bertize
**Eliminado:** ajea

Xehetasunezko Azterlana egitea dakar. Beraz, hirigintza batzordeko proposamena ondorengoa da:

**Eliminado:** zekarren
**Eliminado:**

“Gaia: 18. HAko 1-2 EPH lursailari buruzko Xehetasunezko Azterlana behin betiko onartzea.

**Eliminado:** PUR 1/2

2002ko irailaren 23ko Alkatetzako Ebazpenaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion 18. HAko 1-2 EPH lursailari buruzko Xehetasunezko Azterlanari. Espedientea jendaurrean jarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (02-04-11), Euskaldunon Egunkarian (02-09-24) eta Diario Vascon (02-09-25) iragarkiak argitaratuta eta hamabost eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

**Eliminado:** PUR 1/2
**Eliminado:** z

Horren ondorioz, Hirigintzako Planeamendu Erregelamenduaren 65., 66. eta 140. artikuluetan, Lurzoru-Legearen 40. artikuluan, ekainaren 30eko 17/1994 Etxebizitza, Planeamendu eta Hirigintza Kudeaketako tresnak izapidetzeko premiazko Legearen 7. artikuluan eta Erregimen Lokaleko Legearen 21,1 j) artikuluaren arabera, Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten zaio: **18. HAko 1-2 EPH lursailari buruzko Xehetasunezko Azterlanari behin betiko onespena ematea**.”

**Eliminado:** Z
**Eliminado:** Urbanisti
**Eliminado:** instrument
**Eliminado:** u
**Eliminado: PUR 1/2**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**6.- ORIAKO PASEALEKUA, 14KO LOKALA**. Gipuzkoako Foru Aldundiari lokala formalki lagatzea.

Alkateak proposamenaren berri eman du:

**“AURREKARIAK**

2002ko uztailaren 22an, Alkateak ondorengoa ebatzi zuen, alegia, azalera eskubidearen bidez, Oriako pasealekuan, 14 zk.an, beheko oinean dagoen aretoa, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Administrazioari erostea eta bidezkoa den salerosketa-eskritura publikoa formalizatu zen.

**Eliminado:** ko
**Eliminado:**
**Eliminado:** P
**Eliminado:** Autonomia Erkide
**Eliminado:** aren

Hori guztia, Beasaingo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko negoziazioen ondorio izan da. Horien arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoak diren Oriako pasealekuko 4 etxebizitzak, etxebizitza babestu gisa erabiliko dira eta eraikinaren beheko oinean dagoen aretoan, eskualderako Eguneko Zentroa egokituko da. Horretarako kontutan izanda, indarrean dagoen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Gizarte Zerbitzuen sistema ordenatzen duen urtarrilaren 30eko 4/2001 Foru Dekretua eta gizarte-zerbitzu

**Eliminado:** au
**Eliminado:** P
**Eliminado:** ak
**Eliminado:** bezala
**Eliminado:** lokalean
**Eliminado:** zerbitzu sozialen
**Eliminado:** zerbitzu sozial

gaietan funtzioak zehazteko eta aldi berean Administrazio ezberdinen artean eskuduntzak banatzeko, uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua.

Bidezkoa ikusi denez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik etxebizitza babestuen eta Eguneko Zentroaren kudeaketa era integralean ematea, beharrezkoa da Entitate horri Oriako pasealekua, 14ko lokala formalki lagatzea,

**Eliminado:** P

Horren ondorioz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

**Eliminado:** -

**Lehenik**. Gipuzkoako Foru Aldundiari Oriako pasealekua, 14ko lokala lagatzea bertan eskualderako Eguneko Zentroa jartzeko, baina beti ere Ondasun Araudiaren 109., 110., eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Lokalaren hornikuntza eta mantenimendu-gastuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kargura izango dira.

**Eliminado:** P

**Eliminado:**

**Eliminado:** delarik

**Bigarren**. Espedientea hamabost eguneko epean jendaurrean ipiniko da, iragarkia Ediktu-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Epe horretan alegaziorik ez bada, erabakia behin betikoa izango da.

**Eliminado:**

**Eliminado:** ko delarik

**Hirugarren**. Lagapen honen berri Autonomi Erkidegoan eskuduntza duen organoari ematea.

**Eliminado:** Elkarte Autonomoan

**Eliminado:** u

**Laugarren**. Alkate jaunari akordioa formaltzeko behar diren dokumentuak sinatzeko baimena ematea."

**Eliminado:** baimena ematea

Hitz egiteko txanda eman ondoren, PP eta PSE-EE/PSOEko ordezkariek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo sozialista abertzaleak): "Gu abstenitu egin behar dugu. Ondo ikusten dugu lokal horretan garatu nahi den jarduera, baina bere momentuan, gizarte-zerbitzu orokorrak prestatzeko Foru Aldunditik proposatutako hitzarmenaren aurrean kezkak azaldu genituen eta horregatik gaur abstenitu egingo gara."

**Eliminado:** gara

**Eliminado:** tzen

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 4 (Beasaingo sozialista abertzaleak)

Beraz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

**7.- 2002KO PLANTILA**

a- 2002. urterako Antzizar kiroldegiko plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea.

Eliminado: U

Eliminado: K

Gobernazio-batzordearen aldeko txostena kontuan izanda, 2002. urterako aho batez onartu dira, ondorengo lanpostuen zerrenda eta plantila:

Eliminado:

| Ordena Zk. | Izena | Lanpostu kopurua | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Ordainketa Osagarria | | Dedikazioa | Bulegoa | Lanpostu Horr | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Destinu Osagarriaren Maila | Osagarri Espezifikoa | | | Adskripzioa | | | | |
| | | | | | | | | | Talde edo eskala | Azpieskala | Mota | koe | |
| (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | (6) | (7) | (8) | (9) | (10) | (11) | (12) | | |
| | | | | PERTSONAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANSPOSTUAK | | | | | | | | | |
| 1 | Kudeatzailea | 1 | S | - | 20 | | - | GE | A.E. | S.E. | T.S. | | |
| 2 | Etxezaintza Mantenimendua | 1 | | | 10 | | - | MAN | A.E. | S.E. | P.O. | | |
| 3 | Mantenimendu Laguntzailea | 1 | | - | 75 | | - | MAN | A.E. | S.E. | P.O. | | |
| 4 | Monitore Harreragilea | 1 | | - | 85 | | - | REC | A.E. | S.E. | P.O. | | |
| 5 | Monitore Balioaniztuna | 1 | | - | 85 | | - | MO | A.E. | S.E. | P.O. | | |
| 6 | Administrari Laguntzailea | 1 | | - | 85 | | - | AD | A.E. | S.E. | T.A. | | |

**Eliminado:** ukanbeharrak

**Eliminado:** K

**Eliminado:** d

## PLANTILA ORGANIKOA

| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU KP. | LANBIDE-MAILA | SARTUTA KO TALDEA | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| KUDEATZAILEA | 1 | 01 | A | F | |
| ETXEZAINTZA ETA MANTENIMENDUA | 1 | 08 | D | F | |
| MANTENIMENDUKO LAGUNTZAILEA | 1 | 09 | E | F | |
| MONITORE HARRERAGILEA | 1 | 09 | E | F | |
| MONITORE BALIOANIZTUNA | 1 | 07 | D | F | |
| ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA | 1 | 07 | D | F | |

**Eliminado:** BALIOANIZDUN MONITOREA

Bilduek, aho batez, beraz gehiengo absolutuz, onartu dituzte 2002. urterako Antzizar kiroldegiko lanpostu-zerrenda.

b- 2002. urterako Musika Eskolako plantila eta EUFALEBAREN II. eranskina aplikatzeko akordioa onartzea.

“Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoa”ren Batzorde Erretoreak, 2002ko apirilaren 11n eta 2002ko ekainaren 8n hartutako erabakiaren arabera, aho batez onartu da 2002. urterako Musika Eskolako plantila eta EUFALEBAREN II. eranskina aplikatzeko akordioa.

Eliminado: ar

Eliminado: ko

2002. urterako plantila honako hau da:

**2002. URTEA**

## PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

| LANPOSTU-AREN IZENA | LANPOSTU KOPURUA | ORDAINKETA MAILA | SAILKAPEN TALDEA | EGOERA | HIZKUNTZ ESKAKIZUNA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | KOEFIZIEN-TEA | DERRIGORREZKOTASUN DATA | |
| ZUZENDA-RIA | 1 | 13 + 4 | B | FINKOA | 4 | 1994 | |
| IRAKASLEA | 5 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1994 | |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1997ko iraila | % |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1997ko iraila | % |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1997ko iraila | % 3 |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1999ko apirilak 29 | % 2 |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1999ko apirilak 29 | |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 1999ko apirilak 29 | % |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | - | 3 | 1999ko apirilak 29 | |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 2001eko abenduak 13 | %43,4 (musik<br>Donostiako 3<br>Epaitegiak 200<br>217/01 zk.dun ep |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 2001eko abenduak 13 | %94,4 (Gitarra) I<br>gaietarako Ep |

Eliminado:

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | emandako 394/01 plaza |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | FINKOA | 3 | 2001eko abenduak 13 | %42,4 (musika Donostiako 3 Epaitegiak 200 437/01 zk.dun ep |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | | 3 | 2001eko abenduak 13 | Trikitixa eta pand Behin behineko pertsonalarekin |
| IRAKASLEA | 1 | 13 | B | | 3 | 2001eko abenduak 13 | Biolina %30 kontrataturiko pe |
| ADMINIS-TRARI LAGUN-TZAILEA | 1 | 8,5 | D | FINKOA | 2 | 1994 | % 100 |

Eliminado: -
Eliminado: -l
Eliminado:
Eliminado: -
Eliminado: -
Eliminado: ADMINISTRATIBOA

Bilduek aho batez, beraz, gehiengo absolutuz, onetsi dituzte 2002. urterako Beasaingo Loinatz M Publikoko plantila eta EUFALEBAren II. eranskina.

## 8.- ALKATETZAKO EBAZPENA

Alkateak esan du Gobernu Batzordeko beste kide bat izendatu duela, Arantxa Aseginolaza Azkargorta, Gobernu Batzordeko kideak gaixotasunagatik baja hartu duelako eta Gobernu Batzordea biltzeko gutxienez hiru kide behar direlako. Beraz, Alkatetzako ebazpen honen berri eman da:

“**ALKATEAREN EBAZPENA**

**Alkate ordearen eta Gobernu Batzordeko kidearen izendapena**

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Udal Erregimenaren Oinarriei buruzkoak, bere 21,2 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duenak, bere 41,3. eta 46,1. artikuluetan, horretarako eskuduntza ematen didatenez, ondorengoa

**Eliminado:** Apirilaren 2ko 7/1985 Legea
**Eliminado:** ,
**Eliminado:** t
**Eliminado:** Entitateen

**EBAZTEN DUT**

**Lehenik**. Hirugarren Alkateorde eta Gobernu-batzordeko kide, **PATXI PLAZAOLA MUGURUZA** jauna izendatzea, Udal honetan ordezkaritza duen EAJ/PNV talde politikoko zinegotzia, eskuduntza eta eskumenekin jantzirik.

**Eliminado:** B
**Eliminado:** a
**Eliminado:** prerrogatibekin

**Bigarren.** Ebazpen honen berri dagokion zinegotziari ematea. Udalbatza jakinaren gainean jar bedi haren lehenengo bileran eta argitara bedi, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**Eliminado:** rra

Beasainen 2002ko urriaren 22an
Alkatea
Sinatua: Jon Jauregi Bereziartua”

## 9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honako hauek aurkeztu dira:

DOKUMENTUAK AURKEZTEKO HIZKUNTZA

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nahiz eta beste batzuetan ere esan, oraindik zinegotzi batzuei dokumentazioa bakarrik euskaraz banatzen zaie, adibidez gobernu-batzordeko aktak eta baita ere beste deialdi batzuk, hala nola, Igartza saria, etab. Erabakia izan zen, dokumentazioa guztia elebiduna bidaltzekoarena.”

**Eliminado:**

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Hori begiratuko dugu, baina, nik eskertuko nizueke, akatsa non egiten dugun zehazki adieraztea. Arlo desberdinei gogoraraziko diegu zeintzuk diren betebeharrak.

**Eliminado:** zehazki non egiten dugun akatsa.

Arrate Izagirre andreak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): "Eta erdara hutsean iristen direnekin zer egingo dugu?"

**Eliminado:** ¿

**Eliminado:** enar

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): "Berdin egingo dugu. Esan egin behar duzue."

Arrate Izagirre andreak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): "Baina berdin ez da egiten. Esan, esaten dugu, baina berdin ez da egiten."

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Nik eskertuko nizueke egokia ez den moduan zer iristen zaizuen esatea."

**Eliminado:** esatea zer iristen ez zaizuen

Arrate Izagirre andrea (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Hori jakinda dago. Betetzen ez diren gauza batzuk, betetzera eramaten dira eta beste batzuk ez.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean bilera arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

**Eliminado:** →¶